

## *Bestelako lankidetzak*

# **Ebaluazioaren alfabetoa**

*Iñaki Murua, Luis Mari Txabarri*

*Gai mamitsua, zaila, eta zenbaitetan iritzi kontrajarrien iturria ere bada ebaluazioa. Artikulu hau hiztegi modura dago paratua. Artikulugileek diotenez, gizakiak berezkoa du subjektibotasuna, munduaren ikuspegi bat, errealitatea bereganatu eta ulertzeko modu bat. Ildo bertsutik, ez dago ebaluaziorik erabat objektiboa, perfektoa eta hutsunerik gabea denik. Artikulugileen ustea horixe delarik, beren ikuspegia, ebaluazioari buruzkoa, eskainiko digute segidako artikuluan, definizioz definizio, autoebaluaziotik autonomiaraino.*

Pertsiako kondaira batek dioenez, jainkoek hasieran banatu egin omen zuten egia, gizabanakoei zati bana emanaz. Egia osatu, bakoitzak berea ekarriz osatuko da. Hala, txanpon beraren bi aldeak dira egia eta ekarria.

### **Autoebaluazioa**

Ebaluazioa ez da erantsi bat; ez da nork bere buruari ezartzen dion zigorra; ez administrazioak ezarritako baldintzetako bat; ezta ikaslearen esparrura mugatutako kontrol-prozesua ere. Hausnarketa prozesu sistematikoa da. Uneoro burutzen diren praktikak hobetzea da ebaluazioaren helburu eta beharra.

Bertan dabilenak daki ongien prozesuan zer gertatu den eta indarrak non jarri behar diren. Prozesuetatik gertuen dabilenak izaten du informazio gehien eta zehatzena. Beraz, edozein prozesu hobetzeko, bestelako osagaiekin konbinatuta ere, autoebaluazioa burutzea ezinbestekoa da.

Ikasleari bere ikasprozesuaz jabe dadin eskatzen zaio sarritan. Abiapuntu bat da, baina ez da nahikoa: autoebaluazioa gainerako espa-

rruetara ere eraman beharra dago; besteak beste, irakasleetara eta erakundera.

### **Bat eginik**

Ez da erakunde bereborean pertsona-talde bat, multzo bat, elkarrekin aritzea. Batera aritzea baino ez litzateke izango. Biltzeak eta bilera-mordo bat egiteak ere ez dakar berekin, besterik gabe, bat eginik aritzea. Arazoa ez da denek dena egitea; denen artean dena egitea baizik.

Bat eginik aritzeak taldea eskatzen du, ez multzoa, eta talde izateak hezkuntzarekiko lotura handia duten praktikak eta jarrerak garatzea: entzun, iritziak eman, ekarpenak egin, parte hartu... Bakarka arituta lantzen eta garatzen ez direnak, hain zuzen.

Elementu bakartuetatik urrundu eta lan-sistema berri batean murgildu nahi da ikuspegi honetan: plangintza bateratuak, taldean eginiko hausnarketa, koordinazio sakona... Oinarrizko lan, berrikuntza eta ebaluazio-ekintzagune bilakatzen zaigu gurean euskaltegia.

Erakundearen garrantzia azpimarratu nahi da ondorengo arrazoiengatik: euskaltegiaren baitan geratzen da azpiko kurrikuluaren zati handi bat (partaidetza, harreman-sistema, baliabide ezberdinak...) maiz askoan esplizitazten ez direnak; erakundearen dinamikak ikasgeletako jardunak baldintzatzen dituelako; erakundearen antolaketak eta kudeaketak ikas/irakas prozesuak aberats ditzaketelako; inguruarekiko harremanak euskaltegiak ziurtatzen dituelako... Beraz, ikasgelan burutzen diren jardunak ez dira bere horretan prozesu isolatuak: espazio horretatik kanpo hartzen diren zenbait erabakik ere eragin zuzena dute ikas/irakas jardunetan.

Horrela baino ez dugu lortuko euskaltegiak eta hauek indarrean jartzen dituzten prozesuak hobetzea, irakasleak eta gainerako langileak indartzea. Irakasleak talde izan eta taldean aritzea eredu bilakatzen da ikasleentzat; hauxe baita ikasleei proposatu eta ikasgelan eta ikasgelatik kanpo eskatzen zaiena.

Horrez gain, irakaslearen heziketa ere bidera daiteke taldearen paradigmantik. Emankortasun handiagoa eskaintzen dio erakundetik eginiko ikuspegi globalak, banaka aritzeak baino: koherentzia, koordinazioa, ebaluazio-estrategiak, irizpide komunak... Ezarritako helburua lortzea errazten duten bideak dira.

### **Curriculuma**

Lan-proposamena da: heziketa-aukera baten oinarriak eta ezaugarriak jakin arazten dira bertan eta, teoria eta praktika uztartzeko asmoz, eztabaida kritikora zabaltzen.

Oinarri eta balore berriak ezarri eta indartu nahi dituen kurrikulu-proiektu orok aldaketak ekarriko ditu, antolaketan zein rol eta funtzio-mailan; material eta irizpide berriak jartzen baitira mahaian gainean.

Kurrikulu-proiektua irakasle eta ikasleentzako material-multzo bat baino gehiago da. Azpi-azpian erabaki ideologiko eta pedagogikoak ditugu: zer irakatsi, nola irakatsi, euskarriak, hizkuntz eredu, harreman-sistema...


hau da, ikas-irakaskuntza eta kurrikulu-proiektuarekiko irakasle eta ikasleentzako kontzepzio-multzoa.

Honek bilakatzen du irakaslea, ezinbestez, berrikuntza kurrikularren abiapuntu eta oinarri; berauen eskuetan baitago zerbait aldatu edota bere horretan uztea. Maurik dioena aipatuz, ez dago inolako berrikuntza kurrikularrik aurrera eramaterik irakaslearen prestakuntza eta onenarekin ez bada. Kurrikulu berri batekin aurrera egiteak, ondorioz, irakaslearen heziketa mahairatzea dakar eta materialak eta bitartekoak sortzea.

## **Dimentsioak**

Dimentsio anizduna dugu ebaluazioa. Besteak beste, honako arlo hauek ditu: garaia, helburua, erreferentzia, egilea, hartzailea eta ebaluagaia.

.1:



- *Garaia* kontuan hartuz gero, hasierakoa, prozesuan zeharrekoa, amaierakoa eta diferitua izango ditugu.
- *Helburuari* erreparatuz, ebaluazioa diagnostikoa, formatiboa edota sumatiboa izango dugu.
- *Erreferentzia* hartzen baldin badugu kontuan, normarekikoa, irizpideekikoa, jarreretikoa edota pertsonalizatua izango da ebaluazioa.
- *Egileetara* etorrira, heteroebaluazioa, koebaluazioa eta autoebaluazioa; azterketa-unitatearen arabera, berriz, barne- eta kanpo-ebaluazioa.
- *Ebaluagaien* atalean aztergai nagusia ikaslea izan baldin bada ere, erakundeak indarrean jartzen dituen prozesuak oro sartzen dira esparru honetan: erakundea bera, programak eta proiektuak, indarrean jartzen duen kurrikulua, baliabideak, pertsonala (irakasleak, ikasleak, zuzen-

daritza-organoak, gainerakoak...), harreman-sarea... Zerbitzua hobetu nahi izanez gero, kontuan hartu beharreko elementuak ditugu.

- *Hartzailea* dugu azkenengo dimentsioa. Probetxuzko ebaluazioa nahi izanez gero, adierazgarria eta baliagarria beharko du izan norbaitentzat. Hartzaile ezberdinak izan ditzake ebaluazioak: irakaslea, ikaslea, titularrak, administrazioa, gizartea... Hartzailea zein izango den eta zer informazio behar duen, arretaz aztertu beharreko esparrua da ebaluazio-prozesua egituratzean; nolako espektatiba, halako informazio-bilketa, datuen analisi-maila, informazioaren trataera...

## **Ebaluazioa**

Zenbat buru, hainbat aburu. Hamaika definizio aurkituko dugu bibliografian. Nevok 97an eskaintzen duena hartu dugu:

“Definimos la evaluación educativa como una actividad sistemática que utiliza información para describir los objetos educativos y juzgar su mérito o valía”

Badugu definizio honetan zenbait osagai:

*sistematikoa + informazioa + deskribaketa + epaia*

Beraz, ebaluazioa ez da amaitzen ikusketa eta zedarriztapenean; zerbait gehiago da. Aldez aurretik ezarritako irizpideekiko epaia eskatzen du; eta, ondoren, hobetzeko proposamenak.

Bi elementu bilakatzen zaizkigu behar-beharrezko: batetik, ahalik eta informazio objektibo, baliagarri eta fidagarriena, arlo kuantitatibo zein kualitatiboa; eta, bestetik, irizpideak, ebaluazioaren eta kurrikuluaren ikuspegiarekin bat datozenak. Bi elementu horietako bat baztertuz gero, ebaluazioa iritzia baino ez da izango eta, iritzien munduan murgilduz gero, horietan galtzeko arrisku betean ibiliko gara.

Ebaluazioaren dimentsioetan azaldutakoaren arabera, ez da ikaslea ebaluagai bakarra; ez luke izan behar, behintzat. Aztergai ditugu, izan ere, ikas/irakasprozesuetan eragina duten jardunak ere.

Proposamen berrien abiapuntu behar du izan ebaluazioak, arrakastarako oztopoak gainditzeko baliagarri. Horregatik, eguneroko jardunean txertaturik eduki egon beharko dugu, prozesuari ere erreparatuz.

Ebaluatzeak, azken batean, praktikak hobetzea du helburu: era horretara zergatik egiten diren ulertu, egindakoa baloratu, barruko harreman-sistema eta pedagogia-diskurtsoa aztertu... hitz bakar batera ekarrita, erabakiak hartzeko prozesuak erraztu.

## **Formatiboa**

Scriven izan omen zen, ebaluazioaren funtzio nagusienak azalduz, “ebaluazio formatiboa” eta “ebaluazio sumatiboa”-ren arteko bereizketa proposatzen lehena.

- *Formatiboa*: gauzatzen ari den bitartean, indarrean dagoen programa hobetzea du helburu ebaluazio formatiboak. Horretarako, prozesuaren sekuentziak edota alderdi jakinak aztertzen ditu, indarrak prozesuetan

jarriz. Eginkizun horietan dabiltzanak izango ditugu aztertzaile edo behatzaile, jardun horietatik jasotako informazioa prozesuak eta, hala-beharrez, emaitzak hobetzeko erabiliz. Suma dezakegunez, ikuspegi proiektiboa du ebaluazio formatiboak, aurrera begirakoa. Beraz, ebaluazioak azalarazten duen ezagutza erabili egin behar da aurrera egiteko eta prozesu ezberdinen kalitatea areagotzeko; hau da, prozesuak hobetuz, emaitza hobeak lortzera joko dugu.

- *Sumatiboa*: prozesuaren amaieran gauzatzen da eta emaitzak egiaztatzea du helburu. Eta, ondorioz, kontuak ematea da. Gauzatutako programa bere osotasunean da aztergai, indarrak emaitzetan jarriz, ekoizpenean. Ikuspegi retrospektiboa du, atzera begirakoa. Ebaluazio sumatiboan aztertzaileen partaidetza murriztu egiten da, zedarritu; prozesuetan eragina duten guztiek parte hartzen ez badute ere, kanpoko aztertzailei atek zabaldu egiten zaizkie.

Argigarria delakoan, Stoke-ren adibidea jarriko dugu: *“Zopa sukaldariak probatzen badu, formatiboa izango da ebaluazioa; bezeroak probatzen badu, berriz, sumatiboa.”*

Bi horietaz aparte, hasierako ebaluazioa ere hortxe dugu: *diagnostikoa*. Ebaluazioa jasotako informazioaren balorazioa da, ondoren hobekuntzarako erabaki hartzea bideratu edo erraztuko duena. Prozesuak martxan jartzeko, beraz, guztiz garrantzitsua da abiapuntua zedarritzea, nondik abiatzen garen jakitea. Hauxe da ebaluazioa, diagnostikoaren egitekoa.

Laburbilduz, ikas/irakas prozesuen hobekuntzarako, ez da nahikoa izango amaierako ikaslearen ebaluazio sumatiboa. Ikuspegia ireki beharra dago, gainontzeko dimentsioak ere haintzat hartuta.

## **Gestioa, kudeaketa**

Kudeatzeko, dauzkagun baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, alegia, non gauden jakin behar dugu. Kudeatzeko, ezinbestekoa da ebaluatzea: neurketa edota deskribaketan oinarritutako ebaluazioa.

Erakunde hezitzaileak ere kudea daitezke, dituzten berezitasunak kontuan izan eta dituzten arloei erreparatuz, jakina: akademikoa (kurrikuluaren esparrua eta horren inguruko antolaketa), ekonomiko-administratiboa, giza baliabideena, inguruarekiko harremanena eta instituzionala.

Erakunde hezitzailearen alderdi dinamikoa dugu kudeaketa; estatikoa, berriz, antolaketa. Erakundearen atalak egituratu egiten ditu azken horrek, baina ez du prozesu bat bera ere indarrean jartzen. Horra zergatik estatikoa. Dinamikoa da, berriz, kudeaketa; bete-bete harrapatzen baititu prozesuak (ekintza-planak, koordinazioa, ebaluazioa...).

Erakunde hezitzaileari, eta gure kasuan euskaltegiari, behar-beharrezko zaio antolaketa eta kudeaketa orekatzea, estrukturari eta prozesuei ahalik eta etekinik handiena ateratzea.

## **Hausnarketa**

Zuzendaritzak, erakundeko elementu dinamizatzaile nagusia izaki, taldea etengabeko hausnarketara suspertu behar du, eta bertan burutzen diren jarduerak izango ditu ebaluagai.

Hausnarketa hau ez da mehatxua, ez fiskalizazioa, ez epaia, ezta mutur sartzea ere. Ez luke izan behar, behintzat. Hausnarketa denez, ezin inposaketa izan; inork ezin baitu inor pentsatzera behartu. Horregatik, elkarritzaketa behar du izan, elkartu eta ekarpenak egiteko gune bilakatu. Horrela ezin etsai izan, bidaide baizik: gogaide eta bidaide, esaera zaharrek dioen bezala.

Ikuspegi honetatik, ikerketarako lanabes izango dugu ebaluazioa, ikasle eta irakasleen heziketarako bitarteko.

## **Irizpideak**

Ebaluazioaz aritzean, beti agertzen da *objektibotasuna* hitza. Zer da objektiboa, baina? Testa? Ebaluazioan, bi osagai nagusi ditugu: neurketa edo deskribaketa eta epaia. Deskribaketa, neurketa, ez da inoiz erabat objektiboa izango, baina ezagutzak eta tekniketari trebe izateak murriztu egiten du arriskua. Epaia, aldiz, subjektiboagoa da. Gizakiak berezkoa du subjektibotasuna: munduaren ikuspegi bat, errealitatea bereganatu eta ulertzeko modu bat. Kontua, irizpideetan oinarritzea da. Behar, jarrera eta baloreen isla izango dira irizpideak. Hau honela, irizpideak argitu eta azaleratzen diren heinean, ez gara subjektibismoan eroriko, ez dugu datuen interpretazio okerra edota alderdikoia egingo.

Irizpideak argi badaude, ebaluazioa erreferentzia horrekiko gauzatuko da. Bestela, normara jotzea izango da irtenbideetako bat.

Ebaluazioa, beraz, ez da prozesu aseptikoa eta neutrala. Ideologia oso bat du bere baitan, munduaren ikuspegi jakina. Ebaluazio objektibo perfektuak guztiz kezkatuak gotea, beraz, alferrikako lana da.

## **Jarraia**

Plangintzaren eta horren garapenaren inguruan gauzatuko da ebaluazioa: kurrikulu-proiektua, urteko plana, ikas/irakasjardunak... Prozesuetan txertatua eta berorien dinamikan osagai izango dugu eta ez bidaiaren amaieran ezartzen dugun ekintza, edo elementu erantsia; ez luke izan behar, behintzat. Ikuspegi horrek emango dio funtzio formatiboa ebaluazioari; edo, bestela esanda, horrela izango dugu feedback-emaile.

Nahastu egiten dira, sarritan, aldizka egiten den balorazioa eta balorazio jarraia. Ballestin-ek dioenez, “evaluación continua” ez da “continuas evaluaciones”.

## **KKK: Kontrolatik konfiantzazko kalitaterantz**

Egin beharreko ikuspegi-aldaketa, kultura-aldaketa nahi bada, hiru hitz horietan laburbildu dugu: kontrolaren ikuspegi hertsia gaingiditzen den neurrian, aldatu egingo da ebaluazioa ulertzeko era ere. Ez da zigorra, ez da emaitza hutsetan oinarritzea; hobekuntzarako oinarri baizik. Horrela, ebaluazioa bera hausnarketa eta elkarritzaketa izango da, dimentsioak direnak direla izanda.

Gauzak horrela, zerbitzari izango dugu ebaluazioa, ez nagusi; bitarteko, ez helburu. Ondorioz, irakaslearen sendotza ekarriko du ebaluazioak: aurrera goazela seinale.

### **Lagun**

Ikasprozesua aurrera eramateko, ikaslearen aldeko jarrera indartu egin behar da. Eta hor bete-betea sartzen zaizkigu autoestima eta auto-kontzeptua. Beraz, erronkan irabazle irteteko behar adinako laguntza eskaini behar zaio ikasleari. Ebaluazioak, bide horretan, lagun beharko du izan.

Ikasleez esandakoa, gainontzeko ebaluagaietara ere hedatu daiteke: irakaslearen lagun, taldearen lagun, zentroaren lagun...

### **Memoria eta egitasmoa**

Euskaltegiak bere proiektua gauzatzeko, lanabes bilakatu behar ditu bi dokumentu horiek. Epe laburrerako dokumentu operatibo ditugu bata zein bestea, eskarmentuan oinarriturik, ikasten, aldatzen eta prozesuak hobetzen dituen erakunde izan nahian.

Ebaluazioa eta, batez ere, autoebaluazioa izango ditu euskaltegiak oinarri; eta memoria izango da horren isla. Barne-ebaluaziorik gabe ez da hobe kontzariak sustatuko; kanpokoa berorren osagarri izango baita.

### **Neurtu vs. ebaluatu**

Ebaluatzea neurtzea ere bada; bere baitan hartzen baitu neurketa. Ebaluatzeak neurtzea eskatzen du, baina neurtzeak ez ebaluatzea. Zabalagoa da, beraz, ebaluazioa.

Neurtzearen ondorioz, balore absolutu bat eskuratzen dugu, une jakin batean emana, puntuala eta estatikoa. Datu-bilketa baino ez da, balorazioak egiteko bitarteko. Ebaluatzea, berriz, datuak eta informazioa jasotzea baino gehiago da. Balorazioa da, epaia, datuetan oinarritua eta aurreikusitako emaitzetara iristeko erabaki hartzea bideratzen duena.

### **Osoa (holista)**

Hamaika aldagai daude ikas/irakas prozesuetan eragin zuzena dutenak. Horietako batzuek, prozesuekin bat doazelako, konkurrenteak direlako, aurreikusi ez diren ondorioak sorraraziko dituzte, eta horrexegatik dira kontuan hartzekoak.

Baina prozesu osoa da heziketa-prozesua, bizia, etengabeko dinamikan murgildua. Bertan, aurreikusitako jardunak eta ondorioak izango ditugu; baina, baita maiz samar, espero ez genituen fenomenoak ere. Horrexegatik, ikuspegi osotik bideratu beharreko prozesua dugu ebaluazioa, bere baitan ikas/irakas prozesuak eta horietan eragina dutenak kontuan hartuz.


### **Paradigmak**

Labur esanda, errealitate konplexua ikusi eta ulertzeko erabiltzen ditugun betaurrekoak, mundu-ikuspegia. Ebaluazioaren munduan bi paradigma dira ebaluazioaren munduan nagusi: positibista-kuantitatiboa eta naturalista-kualitatibo-deskriptiboa. Neurriaren inguruan dabilkigu lehe-

na, azken emaitzari begira, errealitatean muturra sartu gabe, kanpotik, distantzia horrek objektibotasuna eskainiko diolakoan; bigarrena, berriz, prozesuan sartzen da, bete-betean, aztergaiari eragiten dioten prozesu oro aztertzen. Parekotasunak eginez, esan daiteke lehena estatikoa dugu-lala eta dinamikoa bigarrena.

Bi ikuspegiak, kualitatiboa eta kuantitatiboa, ez dira inpartzialak; giza-kiak bere-berea baitu subjektibotasuna: aldez aurretikako ezagutzan, eskarmentuan, oinarriturik egiten da aztergaiaren irakurketa.

.2:



Gaur egun, osagarritasunaren alde egiten da; helburua ezagutza sortu eta areago-tzea baita. Eginkizun honetan, bi paradigmak uztartzea da joera nagusia; izan ere, azpiko kurrikulua azal arazteko ikuspegi kuantitatiboa ez da nahikoa.

### **Sistematikoa**

Hau da, denboran eta helburuetan planifikatua. Planak bere baitan hartuko ditu ebaluazioaren helburuak lortzeko aldagaia nagusiak, datuak biltzeko prozedura, datu-iturriak, ikuspegiak, eta garairik egokie-nak. Horrela, ebaluazio-prozesu bat planifikatzeko edo sistematizatze-ko garaian, kontuan hartu beharreko elementuak izango ditugu aldagaien hautaketa, informazioa biltzeko teknikak eta lanabesak, eta denboraliza-zioa.

### **Terminologia**

Sarritan, hitzetan galtzeko arriskua dugu. Gizartean oro har, eta hezkun-tza ez dugu salbuespen, erabileraren poderioz mastrikatutako hitz ugari dugu. Maiz, hitz bera erabili arren, ez dugu komunikazioa lortzen; igor-leak eta hartzaileak ez baitute berdin ulertzen.

Ebaluazioren esparruan ere antzekoak izango ditugu: “urteetan elkarre-kin bizi eta oraindik ezagutzen ez”. Galde diezaiogun bestela solaskidea-ri “zer esan nahi duzu *ebaluazioa* diozunean?”. Berrikuntza ez dugu hitzen ordezkapen huts bilakatu behar.

### **Utopia**

Erabateko kalitatea utopia da; egitasmo eta ebaluazio perfektuak ere uto-piak dira. Baina ikasten goazen neurrian, geure maila hobetzen dugun heinean, ikas/irakas prozesuak piskana-piskanaka hobeak izango dira, koherenteagok izango gara. Utopiaren koherentzian murgilduko gara.



**Xedea, proiektua** Guerrak idatzi bezala, garrantzitsuena ez da ebaluazioa egitea, ezta ondo ebaluatzea ere. Oinarrizkoa, betetzen duen zeregina jakitea da: zein den ebaluazioaren funtzioa, norentzat egiten den.

Honekin estu-estu loturik dugu xedea, zertarako ebaluatu eta zein irizpideren arabera.

**Zikloa** Etengabe hobetzea. Horretara dator ebaluazioa; horrexetara, hain zuzen, gaur egun gizarteaz ezagun bilakatu den konstruktoa: PDCA (ingeleseko hitzak: planifikatu, egin, txekatu eta ondorioak atera, berriz ere planifikatzeko). Sena edo ikuspegi zientifikoa. Baina aurrera zentzuz egiteko bidea.

**Autonomia** Autonomia maila desberdinetan aipatzen da: ikaslea, irakaslea, euskaltegia. Baina, ikaslearena eta irakaslearena alboratu gabe, ikas/irakas prozesuak bideratzeko garaian ikastetxeak duen garrantziaz jabetuta, ikastetxea bera hartzen da protagonista, ez irakaslea; ikastetxearen esparruan hartzen baitira zenbait erabaki, irakasle eta ikasleen esparruan eragin zuzena dutenak. Euskaltegia bilakatzen da, horrela, oinarrizko ekintzagune. Ondorioz, irakasle bakartuetatik ekipo bilakatzera jo beharra dago.

Berrikuntzak oro ikastetxeak kontuan harturik bideratu behar dira; izan ere, kurrikuluaren egokierak eta zehaztasun-mailak gainditu egiten dute irakaslearen esparrua. Horrez gain, heterogeneotasuna ez da ikasleengan bakarrik gertatzen: ez daude bi erakunde berdin; ezta berdin samarrek ere.

Kurrikuluaren kudeaketak planteamendu honetatik, erakunde bakoitzaren baliabideetatik abiatu bideratu beharra du, egoerak, harreman-sistemak, erritmoak eta abar luze bat kontuan harturik.

Horrela, euskaltegi bakoitzak bere bidea urratu beharko du, ezberdin izateko eskubidea izaki.

Autoebaluazioa autonomiaren adierazle dugu. Eta, Lekuonak dioenez, autonomia hezkuntza-kalitatearen ezaugarrienetako bat da. Geure buruaren jabe bagara, zentzu osoa izango du autoebaluazioak.

### **Bibliografia erabilia eta gomendatua**

**Angulo, F., Blanco, N.** 1994. *Teoría y desarrollo del currículum*. Granada: Ediciones Aljibe.

**Angulo, F., Contreras, D. & Santos Guerra, M.** 1991. Evaluación educativa y participación democrática. *Cuadernos de Pedagogía* 195.

**Ballestin, M.** 1996. *Análisis del currículo: del decreto curricular a la programación de aula*. Bilbon 96-03-23an emandako ikastaroko apunteak.

**Bolívar, A.** 1992. La evaluación de centros. *Cuadernos de Pedagogía* 207.

**Busquets, L.** 1998. Autonomía e innovación en tiempos de reforma. *Organización y Gestión Educativa* 2.

**Casanova, M.** 1992. *La evaluación, garantía de calidad para el centro educativo*. Zaragoza: Edelvives.

- Casanova, M.** 1997. Por el camino de la calidad: la evaluación en el centro educativo. *Aula de Innovación Educativa* 69: 47-50.
- Elliot, J.** 1986 Autoevaluación, desarrollo profesional y responsabilidad. In M. Galton & B. Moon (edk.), *Cambiar la escuela, cambiar el currículo*. Barcelona: Martínez Roca.
- Ferreiros, P. & Riu, F.** 1992. Un diseño para la evaluación del Proyecto Curricular. *Aula de Innovación Educativa* 6: 60-64.
- García, J., Perez Juste, R.** 1989. *Diagnóstico, evaluación y toma de decisiones*. Madrid: Rialp.
- Gimeno, J. & Perez Gomez, A.** 1992: *Comprender y transformar la enseñanza*. Madrid: Morata.
- Jackson, P.** 1991. *La vida en las aulas*. Madrid: Morata-Fundación Paideia.
- Lekuona, I.** 1995. Proyecto educativo de centro. *Organización y Gestión Educativa* 1.
- Martín, E.** 1988. Profesión docente y autoevaluación institucional. *Revista de Educación* 285: 33-43.
- Martinez Bonafe, A.** 1992. De la evaluación del alumnado a la evaluación del centro. *Aula de Innovación Educativa* 6: 52-59.
- Mauri, T.** 1993. *El curriculum en el centro educativo*. Cuadernos de Educación. Madrid, ICE-Horsori.
- Murua, I.** 1997. Kalitatea gure esparruan. *Hizpide* 38: 85-104.
- Nevo, D.** 1997. *Evaluación basada en el centro: un diálogo para la mejora educativa*. Bilbao, Mensajero.
- Perrenoud, P.** 1990. *La construcción del éxito y del fracaso escolar*. Madrid: Morata/Paideia.
- Rosales, C.** 1990 *Evaluar es reflexionar sobre la enseñanza*. Madrid: Narcea.
- Sancho Gil J.** 1992 Evaluar, conocer, transformar y mejorar. La evaluación del centro y el desarrollo del criterio profesional. *Aula de Innovación Educativa* 6: 47-51.
- Santos Guerra, M.** 1988 Patología general de la evaluación educativa. *Infancia y aprendizaje* 41: 143-158.
- Santos Guerra, M.** 1990: *Hacer visible lo cotidiano. Teoría y práctica de la evaluación cualitativa de los centros escolares*. Madrid: Akal.
- Santos Guerra, M.** 1992. Evaluar los Centros Escolares: exigencia y necesidad. *Aula de Innovación Educativa* 6: 42-46.
- Santos Guerra, M.** 1994. *Como en un espejo. Evaluación cualitativa de centros escolares*. Buenos Aires, Ed. Magisterio del Río de la Plata.
- Santos Guerra, M.** 1996. *Entre bastidores. El lado oculto de la organización escolar*. Granada, Ediciones Aljibe.
- Txabarri, L. M.** 1997. Kurrikulua, mamu berri hori. *Hizpide* 38: 33-52.
- Villa, A.** (koord.) 1996. *Dirección participativa y evaluación de centros*. Bilbao: Mensajero.